

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Eguena / 2004ko martxoaren 18a / 577. zenbakia

## ETXEKO LANAK TRUKATZEKO IKASTAROAK

Plantxa, elektrizitate eta  
sukaldaritza tailerrak abian



HAUTESKUNDEAK: **EAJ GARAILE BERGARAN/5** • **KULTURA: ASIER SERRANORI ELKARRIZKETA/8**



# GOIENAN HERRIZ HERRI: BERGARA

Victoriano Gallastegi, Bergarako alkatearekin berbetan

**Martitzenean, martxoaren 23an**  
20:30ean

**Aurkezlea:**  
Alberto Gorritiberea

**Parte hartzeko telefonoa:**  
943 71 23 93

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikusiko  
duzu!**

GOIENAN HERRIZ HERRI  
Babeslea:

GRUPO **RK UZ**

## ATREBENTZIAEZPADA/ San Jose egunean oparirik egingo diozu aitari?



**MADDI MUXIKA**  
9 urte



**ANE ZANGITU**  
8 urte



**NEREA AGIRREZABAL**  
9 urte



**UNAI GABILONDO**  
9 urte



**JON ARREGI**  
9 urte



**AITOR ZENGOTITABENGOA**  
9 urte

Orain arte ez diot sekula egin txikia nintzelako, baina agian aurten oparituko diot zerbait. Hala ere, oraindik ez dut pentsatu zer. Anaiak marrazki bat egin du eskolan aitarendako.

Bai, zerbait emango diot egun horretan, baina oraindik ez dut pentsatu zer oparitu. Beste urte batzuetan loreak eman izan dizkiot aitari opari, loreak gustuko dituelako.

Ez dakit, oraindik ez dut ezer erosi. Batzuetan eskulanak egin izan ditugu eskolan, baina aurten aitaren egunerako ez dugu ezer gertatu, beraz, eguna heltzean erabakiko dut.

Agian bai. Zerbait oparitzekotan marrazkiren bat egingo diot, baina oraindik ez dut prestatu. Beste urte batzuetan ere beti marrazkiak oparitu izan dizkiot San Jose egunean.

Bai, seguru aski bai. Oraindik zer egin ez dut pentsatu, baina amari galdetuko diot. Iaz marrazki bat oparitu nion eta beharbada aurten ere gauza bera egingo dut.

Bai, zerbait egingo diot, baina oraindik ez dut pentsatu zer egin, ez dakit berari zer gustatuko litzaiokeen. Lehen, txikia gogoran, eskolan gertatzen genuen oparia, baina orain ez.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXALOAK PATINETEAN IBILTZEKO PISTA** Neska-mutiko koadrila bat izan genuen bisitari astelehenean erredakzioan. Udalak patinetean ibiltzeko plataforma Labegaraietan jarri behar duela irakurri zuten BERRIGARAN. Antza, askotan agindu diete Udaletik aipatutako pista jarriko zutela, eta pista noizko egongo den gertu jakin nahi zuten. Udala zoriondu nahi zuten pista jartzeagatik.

## ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 6

**Kirolgune berriko lanak**

Agorrosingo igerilekuen eraikin zaharra botatzeko lanak lehiaketara aterako dituzte.

KULTURA / 8

**Asier Serrano, Pol-Polen**

Asier Serrano idazle eta kantariak emanaldia egingo du Pol-Polen datorren egunean.

KIROLA / 9

**Euskal Herriko Itzulia, gertu**

Munduko txirrindulari onenak izango dira apirilaren 5ean Bergaran, Euskal Herriko Itzulian.

## ASTEKO DATUA

**% 73,5**

**PARTAIDETZA HANDIA HAUTESKUNDEETAN**

12.543 herritarrek zuten botoa emateko aukera eta askok aprobetxatu zuten. Erroldakoen %75 inguru joan zen hauteskunde mahaietara eta abstentzioa txikia izan zen: % 26,5.

## BESTE EKESANA

**“Elkarte izaerarekin izako ekainean sortu zen Bergarako Emakume Kultur Elkarte (BEKE).**

**Emakumeak elkartzeko eta ondo pasatzeko gunea izan nahi du BEKEK. Ekintzak antolatzen hasiak gara jada, eta asmo eta ilusioak gainezka ditugu, baina dirua eta lekua dira gure arazo nagusi eta oinarritzkoenak. Ikastaro gehienetarako irakasleak badauzkagu eta ikasleak ere pila bat, baina horiek aurrera eramateko leku egokiak eta diru laguntzak falta zaizkigu. Esaterako, tai-chi eta defentsa pertsonalerako ikastaroetarako ez dugu toki egokirik aurkitu, ezta diru laguntzarik ere biodietetikako edo barretapiako ikastaroak finantzatzeko, bietan jende asko interesatuta egon arren.”**

**BERGARAKO EMAKUME KULTUR ELKARTEA**  
'Berrria'/04-03-06

## BERAIEK DIÑO/ Andres Osa 'Sakona'



*Ordainsaria ordaindu*

**Z**Pk irabazi ditu hauteskundeak. Presidente izango zenik berak ere ez zuen espero eta danba, danbada baten ondotik, etorri zaio loteria. Mesedea jaso du, ordainsaria ordaintzea falta zaio. Noizko? Prestige ontziaren arazoa gertatu zen; iraken parte hartzeagatik milioika herritar altxatu ere bai. Hauteskundeak igaro ziren eta PPK ez zuen jaso zigorrrik. Orain Madrillgo atentatuek ZP Espainiako presidenten egin dute.

Al Qaedak iragarritu zuen horrelako zerbait gertatuko zela. Esan eta egin. Abu Dujan Al Afgani, Al Qaedako ordezkariak esan du: "Madrillgo atentatuak munduan egin dituzuen krimenen erantzuna dira. Bidegabekeria amaitu ezean, atentatuok txikiak emango dute gerta daitekeenaren aldean". Abisua jaso al da? Terrorismoaren aurka gogor egingo dela esanaz ari da ZP; horren aurka botikarik onena Estatuek terrorismoa egiteari

uztea da. Elkarrizketa kulturari leku uzten zaionean arazoak konponduko dira. PPK ordaina jaso du. Ez da aski atentatuak gaitzestea. Hori tontoenak ere egin dezake. Eta gure jendeak, hemengoak ikasiko al du ikasgaia?

Hilketak, atentatu ikaragarriak, hemen geure inguruan gertatzen direnean kargutzen gara. Estatuak beste nazio bat inbaditu eta milaka hilketa egiten dituenen badirudi hori ez dela terrorismoa. Hobe da ikasgaia ongi ikastea eta tontokeriak egiteari lagutzea garbi ohartarazi baitigute: "Gu, Abu Hats Brigadetan, ez gaude triste zibilak hil direlako. Haien zat zilegi al da gure umeak, emakumeak, jende zaharra eta gaztea Afganistanen, Iraken, Palestinan eta Kaximiran hiltzea? Eta guri zuenak hiltzea debekatzen zaigu?"

Gure politikoei hausnarretarako, zer esan dut!, ohartxo hau: hitz egin aurretik, pentsatu.

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil  
**ERREDAKZIOA**  
Irati Agirreazaldegia  
**MAKETAZIOA**  
Maitena Arana

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga  
**KOLABORATZAILEAK**  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberebizbar

**LEGE-GORDAILUA**  
SS-50/91  
**ISSN**  
1130-6599  
**TIRADA**  
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udaia

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 19**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**ZAPATUA, 20**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

**DOMEKA, 21**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

**ASTELEHENA, 22**  
MOZOS. Iparragirre 2. .... 943 76 12 15

**MARTITZENA, 23**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74

**EGUAZTENA, 24**  
ZABALA. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87

**EGUENA, 25**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**  
Anbulatorioa (txanda) .... 943 03 54 00  
Bergarako Udaltzaingoa .... 943 77 91 06  
Antzuolako Udaltzaingoa .... 943 76 62 46  
Ertzaintza .... 943 53 47 20  
Osasun etxea .... 943 76 24 40  
Asepeyo .... 943 76 16 43  
Pakea .... 943 76 13 49  
Angiozarko medikua .... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua .... 943 76 62 23  
Odol emalleak .... 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak .... 943 76 51 06

**GARRAIOAK**  
Taxiak .... 943 76 19 50

**UDALA**  
Bergarako Udaletxea .... 943 77 91 00  
Antzuolako Udaletxea .... 943 76 62 46  
Udal Artxiboa .... 943 77 91 32  
Igerilekuak .... 943 76 20 51  
Kultura etxea .... 943 77 91 58  
Liburutegia .... 943 77 91 62  
Kiroldegia .... 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza .... 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**  
Epaitegia .... 943 76 14 92  
Erregistroa .... 943 76 13 15  
Jardun .... 943 76 36 61  
Idolaz .... 943 76 65 08  
Erretiratuen etxea. Bergara .... 943 76 21 40  
Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71  
Postetxea .... 943 76 26 85  
Bedelkar .... 943 76 04 68  
Akulu AEK. .... 943 76 05 18  
Udal Euskaltegia .... 943 76 44 53  
Bergarako notariotza .... 943 76 10 73

**MEZAK**

<b>San Pedro</b> Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	<b>Labegarieta</b> Domekak: 11:00. <b>San Lorenzo</b> Zapatuak: 20:00. <b>Angiozar</b> Domekak: 11:30.
<b>Santa Marina</b> Domekak: 11:00, 13:00. Zapatuak: 19:00.	<b>Moja Zaharrak</b> Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 11:00.
<b>Sierbak</b> Lanegunak: 19:30	<b>Mizpirualde</b> Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30.
<b>Osintxu</b> Domekak: 12:30. Zapatuak: 19:00.	<b>Antzuola</b> Domekak: 09:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
<b>Elosu</b> Domekak: 10:30.	<b>Uzarraga</b> Domekak: 10:00.
<b>Ubera</b> Domekak: 10:30.	<b>Elgeta</b> Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 19:30.
<b>San Juan</b> Domekak: 11:00.	<b>Elorregi</b> Domekak: 12:00.
<b>Elorregi</b> Domekak: 10:30.	

**URTE-MEZAK**  
**Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan, 10:30etan eta 13:00etan.  
**San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan, 09:30etan eta 12:30etan.

**OHARRAK**

**1974AN JAIOTAKOEN BAZKARIA**  
1974an jaiotako bergararrek bazkaria egingo dute martxoaren 27an Zabala jatetxean. Aurretik Pol-Pol tabernan elkartuko dira, 12:30ean. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan (3035 0009 1500 9007 0752).

**1954AN JAIOTAKOEN IRTEERA**  
1954an jaiotako bergararrek Errioxara irteera egingo dute apirilaren 3an. Irteera 08:30ean izango da Frontotik. Izena emateko epea martxoaren 26ra arte zabalik Euskadiko Kutxan (3035.0009 1400 9110 8913).

**ERRETIRATUEN IRTEERA**  
San Joxepeko erretiratuek Hondarribiara irteera egingo dute martxoaren 24an. Bazkaria Usurbilgo sagardotegi baten egingo dute eta arratsaldean Miramonera joango dira. Izenematea: 943 76 30 09.

**JARDUNEN AGENDA**

**KANTU AFARIA APIRILAREN 2AN TXARRANTXA JATETXEAN**  
Jardunek kantu afaria antolatu du apirilaren 2rako. Txarrantxa jatetxean izango da. Kantu afarirako txartelak Kortazar tabernan edo Jarduneko bulegoan (Errotalde Jauregian) eskuratzeko aukera duzue. Jarduneko bazkideek 18 euro eta gainerakoek 20 euro ordaindu beharko dituzte. Izena emateko epea, martxoaren 29ra arte zabalik.

**TXAPLIGU TALDEAREN IRTEERA**  
Txapligu taldekoek irteera egingo dute martxoaren 19tik 21era Eginora. Txiskrilabi taldekoak, berriz, Zarauzko Etxe Txiki aterpetxean izango dira aste bukaeran. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

**San Lorenzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluez aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolvia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN**

**Bergarako Zabalkunde Turistikorako Plangintza**

Bergarako Zabalkunde Turistikorako Plangintza aurkeztu zuten 1994ko martxoan. Plangintzaren helburu nagusia herriko ondarea artistikoa ezagutzera ematea eta turistak erakartzea zen. Besteak beste, herriaren inguruko 12.000 foileto kaleratu zituzten, lau hizkuntzatan.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Kukumixo"*



Makurtuta, kakaginan bezala.  
—Kukumixo egon, jarri.

GORKA ORTEGA

**ASTEKOPELIKULAK**

**'21 GRAMOS'**

ZUZENDARIA: ALEJANDRO GONZALEZ IÑARRITU. AKTOREAK: SEAN PENN, NAOMI WATTS.

**HARIA.** Paul bihotz transplante baten zain dago. Cristina drogazale izana da eta bi alaba gazte ditu. Jack kartzelatik atera berri da. Istripu baten ondorioz ezagutuko dute elkar.

**TOKIA ETA ORDUA.** Eguenean, 22:30ean; egubakoitzean eta zapatuan 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**'LA MANSION ENCANTADA'**

ZUZENDARIA: ROB MINKOFF. AKTOREAK: EDDIE MURPHY.

**HARIA.** Etxe agentzia bateko agente bat, senideekin, etxe handi batera doa, negozioia egiteko. Ekaitzaren ondorioz gaua han pasatu beharko dute, baina amesgaiztoa izango da. Eddie Murphy aktore komikoak beldurrezko filma egin du oraingoan.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**HAUGIROA!**

**MINIMOA** **-3°C**  
Eguena, 11

**MAXIMOA** **24°C**  
Astelehena, 15

**ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)** **18,7 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 10	6°C	1°C	- l/m <sup>2</sup>
Eguena, 11	16°C	-3°C	5,5 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 12	12°C	9°C	12,6 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 13	12°C	7°C	0,6 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 14	21°C	3°C	- l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 15	24°C	0°C	- l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**EDEL TAPIZ DENDA**

*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**

**KONDE PANADEROKUA**

Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

**GIZARTEA/** Besteak beste, joskintza, lisatzea, sukaldaritza, iturgintza eta elektrizitatea ikasteko aukera izango da

# Gizon eta emakumeen artean etxeko lanak trukatzeko ikastaroa antolatu du udalak

EDU MENDIBIL

Hirugarren urtez jarraian, Udaleko Gizarte eta Ongizate Zerbitzuak gizonen eta emakumeen artean etxeko ardurak trukatzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa astelehenean, hilaren 22an, jarriko dute abian. Izenematea doan da.

Gizonekoek joskintza, lisatzea, sukaldaritza, garbiketa eta etxeko ekologia jorratuko dute eta emakumeek, berriz, iturgintza, elektrizitatea, brikolajea eta etxeko ekologia. Hala ere, Jon Lopez Gizarte eta Ongizate Zerbitzuko teknikariak argitu digunez, interesatuek aukera izango dute nahi duten ikastaroa egiteko: "Emakume batek nahi badu sukaldaritza, lisatzea, eta abar ikasi, ez dago arazorik, eta berdinean iturgintza eta elektrizitate ezagutzarik ez duten gizonezkoekin. Azken baten, etxeko ardurak trukatzeko orduan rola ez daude oso ondo zehaztuta gaur egun. Emakume zein gizezkoendako atak zabalik ditugu, eta ikastaroan parte hartzen duten guztiei ondo etorriko zaie gauza berriak ikastea. Ikastaroaren helburuetako bat gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna jorratzea da, eta etxeko ardurak trukatzeko urrats bat izan daiteke".



Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna jorratzea da ikastaroaren helburuetako bat.

*Izenematea doan da, eta eskolak astelehenean bertan hasiko dira*

## PLAZA MUGATUAK

Bietan ere eskolak astelehen eta eguaztenetan izango dira, 19:00etatik 21:00etara. Guztira, hamar saio izango dira eta ikastaroa maiatzaren hasieran amaituko da. Iaz bezala, Udalak Elgoibarko Bide Egin enpresa kontratatu du ikastaroa emateko.

Esan bezala, aurten hirugarren aldiz antolatzen dituzte ikastaro hauek. Jon Lopez Udaleko teknikariaren arabera, orain arteko esperientzia guztiz positiboa izan da: "Harrera ona izan dute ikastaroek, eta partaideek esandakoaren arabera, gustura ibili dira. Adin guztietako jendea etorri izan da. Iaz esaterako, nagusienak 60 urte pasatxo zituen eta gazteenak, berriz, 17 urte. Emakumeen aldetik beharbada eskera handiagoa izan da aurten, baina gizon dezente ere etorri izan da argibide eske. Guztira, 30 plaza egongo dira, eta aurrekoetan moduan, plaza guztiak betezea espero dugu".

## PLAZA MUGATUAK

Eskolak datorren astelehenean, hilaren 22an, hasiko dira. Izenematea doan da eta interesatuek Udaleko Gizarte eta Ongizate Zer-

bitzura edo 943 77 91 25 telefono zenbakira jo dezakete. Plaza mugatuak dira. Iturgintza, elektrizitatea, brikolajea eta etxeko ekologia Mariaren Lagundiko

eraikin berrian eskainiko dituzte, eta nagusiki gizezkoekin zuzendutako eskolak, berriz, erretiratuaren egoitzan, Boni Laskurain kalean izango dira.

# Partaidetza handia domekan eta EAJ garaile Bergaran

E.M.

EAJ alderdiak jaso zituen boto gehien domekan, Bergaran, Espainiako Gortearako hauteskundeetan. Jeltzaleek 3.228 boto lortu zituzten. Berez baliorik gabeko botoa izan arren, Bergarako Ekimena izan zen bigarren indarra (1.411 boto), PSE-EE (1.223) eta Aralar-Zutik koalizioaren (1.105 boto) aurretik, hain zuzen ere. PP alderdiak 639 boto izan zituen eta Ezker Batuak, berriz, 611 herritarren atxikimendua izan

zuen. Partaidetza handia izan zen martxoaren 14ko bozketan: orain dela lau urteko hauteskundeetan abstentzioa %51koa izan zen eta domekan, berriz, %26,8koa. Ondorioz, alderdi gehienek gora egin zuten: Eusko Alkartasuna eta Alderdi Popularra izan ziren orain dela lau urte baino boto gutxiago jaso zituzten bakarrak; EAk 27 boto gutxiago izan zituen eta PPK, berriz, 344 boto galdu zituen 2000ko martxoarekiko. Espainia osoan gertatu bezala, behar-rakada nabarmena izan zuen PPK (ehu-

nekoari erreparatuz gero, %16tik %7ra).

Beheko koadroan ikus ditzakezue domekako emaitzak, zonaldeka banatuta. Orain dela lau urteko datuekin konparatuz gero bada aldaketa bat: Osintxun 512 herritarrek izan zuten botoa emateko aukera 2000. urtean. Osintxuarren artean abstentzioa %62,6koa izan zen orduan.

## ATXILOTUTAKO BAT DOMEKAN

Esan bezala, goizean goizetik herritar mor-doa joan zen hauteslekuetara botoa ema-

tera. Orokorrean hauteskunde eguna lasaia izan zen. Hala ere, Ertzaintzak gazte bat atxilotu zuen Martokon, botoa ematera-koan *Policia asesina* leloa erakustearren. Ertzaintzaren komisariara eraman eta gero, aske laga zuten.

Bestalde, zapatuan Iruñean gertatu zen Angel Berruetaren hilketa salatzeke elkarretaratzea egin zuten 40 lagun inguruk domeka eguerdian, San Martin plazan. PP eta poliziaren kontrako eta elkarrizketaren aldeko pankartak erakutsi zituzten.

## 2004ko hauteskunde orokorrak zonaka. Kongresurako emaitzak

ZONALDEA	Hautesle errolda		Abstentzioa		EAJ PNV		Eusko Alkartasuna		PSE-EE		Aralar ZUTIK		BERGARAKO EKIMENA*		PP		Ezker Batua	
	2000	2004	2000	2004	2000	2004	2000	2004	2000	2004	2000	2004	2000	2004	2000	2004	2000	2004
ERDIALDEA	5.928	6.094	%49	%23,8	385	1.573	578	547	381	519	-	582	-	718	441	305	116	312
MATXIATEGI	3.232	3.522	%49,9	%26,74	687	936	189	242	335	395	-	271	-	380	299	196	63	140
MARTOKO	2.167	2.040	%51	%27,25	413	477	127	115	231	267	-	164	-	195	189	118	62	121
LABEGARAIETA	950	887	%58,7	%29,5	238	242	64	66	27	42	-	88	-	118	38	20	14	38
GUZTIRA	12.789	12.543	%51	%26,82	2.829	3.228	997	970	990	1.223	-	1.105	-	1.411	983	639	258	611


\*Bergarako Ekimenari jarri dizkiogun botoak ofizialki, balio gabek dira. Gainera, zenbatu ditugu Autodeterminazioaren aldeko boto-paperak eta bestelako balio gabek.

HIRIGINTZA/ Eraikin zaharra botako dute, BK Eren aldagelak eta bulegoak lagata

# Igerilekuak botatzeko lanak lehiaketara aterako dituzte

E.M.

Agorrosin inguruko udal lursailen batuketa onartu zuen asteleheneko udalbatzak. Udaleko iturrien arabera, martxo bukaeran igerileku zaharrak botatzeko lanak adjudikatuko dituzte. Kirolgune berria egiteko lanak noiz hasiko diren zehazteke dago.



Kirolgune berriko proiektuak atzerapen nabaria dauka.

Kirolgune berriko proiektuak atzerapen nabaria dauka. 2002ko irailean itxi zituzten igerilekuak eta ordutik kanpoko igerileku txikia bakarrik egokitu dute herritarrek erabiltzeko. Udaleko iturriek esandakoaren arabera, igerileku zaharrak botatzeko lanak martxo bukaeran adjudikatuko dituzte. Eraikin zaharra botako dute, baina Bergara Kirol Elkarteak erabiltzen dituen aldagelak eta bulegoak ez. Bergara Kirol Elkarteak proiektu horren inguruko zalantzak agertu ditu. Bestalde, kirolgune berria egiteko faseak laster zehaztuko dituela agindu du Udalak.

Bestalde, asteleheneko udalbatzan, Udal Pilotalekuan egokitze lanak egiteko 22.536 euroko gastu proposamena onartu zuten. Jaurlaritzako Herrizaingo Saile-

ko Joko eta Ikuskizun Departamentuak Udal Pilotalekuan hainbat lan egitea agindu du, indarrean dagoen araudira egokitze. Puntu guztiak aho batez onartu zituzten EAJ-EAK, Aralarrek eta PSE-EEk. Ezker Batu-ko eta Alderdi Popularreko zinegotziak ez ziren udalbatzan izan.

**BERRUETAREN ALDE ELKARRETARATZEA**  
Bestalde, LAB sindikatuak Angel Berruetaren hilketa salatzeke egindako deialdiari erantzunez, 150 lagun inguruk elkarretaratzea egin zuten martitzen eguerdian San Martin plazan. Herrian Berruetaren aldeko mobilizazioak izan dira egunotan.

## Miguel Altunako 15 ikasle atzerrira, praktikak egitera

E.M.

Miguel Altunan ikasten diharduten 15 ikaslek atzerrian egingo dituzte praktikak datozen hila-beteotan. Hain zuzen ere hama-bi asterako joan dira atzerrira.

Goi mailako zikloa amaitu dute ikasleek eta elektrizitatea, mekanika edo arlo administrati-boan ikasitakoa praktikan jarri behar dute. Lanbide Heziketako ikasleei zuzendutako Leonardo Europa mailako programari esker atzerrira joateko aukera izan dute. Itxaso Mendizabal, Jon Osés, Orzi Urriaregi eta Xabier Plazaolak Ingalaterrara alde egin dute, Joseba Inza, Bittor Gallas-

tegi eta Iban Sevillanok Erru-manian egingo dituzte praktikak, Jon Ugartetxek, Inaki Mondragonek, Jon Gurutz Godoyk, Asier Sanchok eta Aritz Saidik Alemanian eta Jon Zangituk, Naiara Martinezek eta Aitor Olabarriak, berriz, Galesen.

### LANERAKO ESPERIENTZIA

Iñaki Larrañaga Miguel Altunako zuzendariaren arabera, atzerrian hemen ondoren izan ditza-keten lan postuak beteko dituzte. Beka bakoitzaren zenbatekoa 3.000 euro da: hain zuzen, horietako 12 Miguel Altunan berak gestionatu ditu eta gainerako hirurak Confebasken bitartez.



Ikasleak Iñaki Larrañaga zuzendaria eta Susane Agirregomezkorta irakaslearekin.



### Garabi zerbitzua, uda osterako

Garabi zerbitzua martxan jartzeko eguna atzeratzen ari da behin eta berriz. Udalak aditza eman duenez, ur zikinen kolektorea jartzeko lanak direla-eta, uda ostein hasiko da lanean garabia. Izan ere, garabiak jasoko dituen auto-endako Labegarietako gara-je zaharra erabiliko da gordailu modura. Aipatutako gordelekuaren ondoan kolektoreko lanak egin behar dituztenez, uda osterara arte ez da garabia martxan jarriko.

### LABUR

#### Udaleko Enplegu Zerbitzuak Windows 98 eta Word ikastaroa antolatu ditu

Bergarako Udaleko Enplegu Zerbitzuak antolatuta, Windows 98 eta Word hasiera ikastaroa izango da apirilaren 19tik maiatzaren 21era bitartean. Ordutegia zehaztu gabe dago oraindik. Interesatuek udaletxeko Ongizateko Enplegu Bulegoan (943 77 91 65) egin dezakete izena ematea, martxoaren 29tik apirilaren 2ra bitartean.

#### Bularreko minbiziaren gaineko hitzaldia antolatu du BEKEk datorren martitzenerako

Bergarako Emakumeen Kultur Elkarteak antolatuta, Jose Ramon Serrano ginekologoak bularreko minbiziaren gaineko hitzaldia egingo du datorren martitzenean, hilaren 23an, Miguel Altunako aretoan, 18:00etan. BEKE elkarteak dei egiten diete gaiarekin interesatutako guztiei hitzaldira joateko.

## Ganbara

TABERNA

Heure erara  
ibiltzeko!

Irala z/g.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 55 75



**IRRINTZI**  
kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26

**UREDERRA**  
ITURGINTZA


Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

# AZPEITXI

*Jatetxea*

Aranerreka 13 behea. Bergara  
943 76 55 00



## SUKALDARI TREBEAK BEKE-K ANTOLATUTAKO IKASTAROAN

**B**ergarako Emakume Kultur Elkarteak sukaldaritza ikastaroa antolatu du. Inazio Beldarrain sukaldariarekin batera, 14 lagunek (tartean la gizonezko) dihardute Artatse elkartearen eta sukaldean esku ona dutela erakutsi dute aste honetako bi saioetan. Astelehenean, esaterako, arrain zopa eta zapoa amerikar erara gertatu zuten. Zintzo-zintzo jarraitu zuten Beldarrainen emandako azalpenak eta gero ikasitakoa praktikara eraman zuten, bikain gainera. Martitzenean, berriz, postreak gertatzen jardun zuten, beste bi orduz. Datorren astean beste bi saio izango dituzte, ikastaroari amaiera emanez. Lagunek segituan jarriko dituzte proban, herriko elkarteetan. Ea ba!!!



## BERGARA KE-REN ZOZKETA ABIAN


**B**ergara Kirol Elkarteko zuzendaritzak diru sarrerak lortzeko lanean jarraitzen du gogor. Kirol sail guztien aurrekontuari aurre egin ahal izateko, zozketa berri bat antolatu du oraingoan. Joan zen urtean egin zuten moduan, hilabetero zozketa egingo du Bergara KEk. Txartelak euro baten truke salduko dituzte eta hilean behin Otsein markako etxetresna elektriko bat eta 200 euro banatuko dituzte. Txartelak kalean dira eta, esan bezala, euro baten truke salgai jarri dituzte Arkupe, Dixula, Deportivo, Kiroldegia eta Frontoi tabernetan. Ea martxoan zein suertatzen den irabazlea...



### BERGARA:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa
- Plazako kioskoa

Harpidetza eta banaketari  
buruzko informazioa:

 902 36 38 51

## ELKARRIZKETA

ASIER SERRANO/IDAZLEA ETA MUSIKARIA

# “Gutxiengoan dagoen entzuleriarengana heltzea gauza handia da niretako”

EDU MENDIBIL

Jardunek Kultur Errotaren barruan antolatuta, Asier Serrano idazle eta musikariak emanaldia egingo du datorren eguenean, hilaren 25ean, Pol-Polen, 19:30ean. Egun Zarautzen bizi den egile eibartarrak kantuak eta ipuinak tartekatuko ditu.

## Idazletzat ala musikaritzat duzu zure burua?

Idazleen artean musikaria naiz eta musikariendak idazlea izango naiz agian. Paperera baino gehiago kantaldietara eta errezitaldietara bideratu dut nire literatur lana, eta prozesu naturala jarraituta kantari eta musikari izaten bukatu dut. Nire kasuan ezin dut ulertu liburu edo poema bat musikaririk gabe, eta alderantziz ere ez. Batera doaz biak.

## Zelako ikuskizuna eskainiko duzu Bergaran?

Euskal Idazleen Elkartetik sortutako egitasmoa da, musika eta literatura ikasleei hurbiltzeko helburuarekin jaiotzen zena. Nire ibilbidearen berri ematen dit, Lubaki literatur taldean hasi nintzenetik hona. Emanaldi askea eta intimoa dela esango nuke, eta nahiago izaten dut entzuleen galderari erantzun. Argitaratutako

ipuin baten irakurketa ere egingo dut eta, azkenik, gitarrak lagunduta, Lorelei taldean ibili nintzeneko kantuak eta nire bakar-kako diskoetako beste hainbat joko ditut.

## Zein harrera izan dute zure diskoek?

Pozik nago. Nire burua pribilegiatutzat daukat, euskal musikan jarraitzeko aukera dudalako. Disko asko saltzea baino gehiago, entzuleei mezu bat helaraztea da nire asmoa. Badakit gutxiengoan dagoen entzuleria dudala, baina horiei nire lana helaraztea gauza handia da niretako.

## Bakarka ari zara aspaldian. Lorelei taldeari utsiko al diozue berriz?

Momentuan *Gerrari bai* nire bigarren diskoa aurkezten gabiltza herriz herri. Baina Lorelei taldea berpizteko asmoa daukagu. Uda ondoren, emanaldiak egite-

ra itzuliko gara ziurrenik. Bestalde, tartean disko bikoitza kaleratzeko asmoa daukat.

## Bikoitza, zergatik?

Disko bakar baten zaila egiten zait nire mundua azaltzea. Beraz, diskoetako bat akustikoa izango da, gitarra hutsarekin eta soka instrumentuekin lagunduta eta bestean gitarra elektrikoaren indarra islatu nahi dut. Nahasmen moduko hori atsegin dut.


## Eta literaturan, zein proiektu duzu esku artean?

Nobelatxo bat idazten ari naiz, eta ekainerako bukatuko nuela agindu nien argitaletxekoei. 1990eko hamarkadan gure belaraldiak bizi izan zuen giroaren gainekoa izan da. Logikoa denez, neurri batean autobiografikoa da eta musika talde baten gorabeherak, maitasun istorio bat eta poliziako beste bat tartekatzen dira. Titulua? Ez daukat oraindik, ezeri ez diot jartzen titulurik, izugarri kostatzen zait.

## Literaturan eta musikan, zer duzu gustuko orain?

Egia esateko, irakurle txarra naiz, baina Harkaitz Canoren lana asko estimatzen dut. Musikan, Rafa Ruedaren *Kea* diskoak txundituta utzi nau aspaldian. Hor daude baita Kuraia, Eraso.... Oso musikari onak ditugu Euskal Herrian, entzuleria handitza falta zaigu.

“Ezin dut ulertu liburu edo poema bat musikaririk gabe, eta alderantziz ere ez”



## Artista gaztetxoaren margo erakusketa kultur etxean

Mayra Jimenez eta Oihana Garitanoren ikasleen margo erakusketa ikusgai dago kultur etxeko erakustokian, martxoaren 28ra arte. Aurten, 6 eta 12 urte bitarteko 30 gaztetxo inguruk dihardute Beartek antolatutako ikastaroan. Kultur etxean zabaldu duten erakusketan ikusitakoaren arabera, artista handiak ditugu goiko argazkiko gaztetxo hauek.

## LABUR

### Mendekoste jaietako programaren azala egiteko lehiaketa deitu du Udalak

Udalak Mendekoste jaietako programaren azala egiteko lehiaketa deitu du. Kartelek 46x61 zentimetroko neurria izan beharko dute eta ondoko testua eraman beharko dute: *Pentekoste jaiak 2004 Bergara*.

Irabazleak 600 euro eskuratuko ditu. Lanak jasotzeko epea martxoaren 31ra arte izango da zabalik, kultur etxean.

### Kalean eta K 104 taldeak gaztetxean eta The Gathering eta Kokein Jam aretoan, zapatuan

Kontzertu bikoitza izango da zapatuan, hilaren 20an, Bergaran. Batetik, Kalean taldeak *Golpea tu mente* bere azken diskoa aurkeztuko du gaztetxean, 22:30ean. Kalean taldearekin batera, K 104 taldea etorriko da gaztetxera.

Jam aretoan, berriz, The Gathering eta Kokein taldeek emanaldia egingo dute zapatuan, 21:00etan.

### Txorimalo Lehiaketarako izenematea martxoaren 26ra arte zabalik Jardunen

Jardunek antolatuta, Txorimalo Lehiaketa egingo da Erramu zapatuan, apirilaren 3an. Partaideen adinaren arabera, hiru talde bereiztuko dituzte eta irabazleentzat sari bikainak izango dira.

Izena emateko epea martxoaren 26ra arte izango da zabalik Jardunek Errotalde jauregian duen bulegoan (943 76 08 19).



## TXIRRINDULARITZA

# Munduko 20 talderik onenak Bergaran izango dira, Euskal Herriko Itzuliaren hasieran

Lehen etapa hasi eta amaitu Bergaran egingo da apirilaren 5ean


IRATI AGIRREAZALDEGI

Munduko txirrindulari onenak Bergaran izango ditugu datorren apirilaren 5ean, Euskal Herriko Itzuliaren hasieran. Besteak beste, Fassa Bartolo, T-Mobile, Saeco, Euskaltel, Kelme edota Armstrongen US Postal taldeak izango ditugu bisitari.

Bergaran hasiko da aurten Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia, apirilaren 5ean, eta munduko hogeitaz hamar talderik onenak irteeran izango direla iragarri dute probaren antolatzaileek.

Batetik, *top ten* delakoa osatzen duten hamar ekipoak egongo dira: Fassa Bartolo, Quick Step, T-Mobile, Saeco, Illes Balears, Gerolsteiner, Cofidis, Rabobank, Liberty Seguros eta Us Postal, hain zuzen ere.

Bestalde, Espainiako Kirol Taldeen Elkarteko sei talderi ere gorde diete lekua. Talde honetan daude Euskaltel, Kelme, Saunier Duval, Paternina, Relax eta Cafes Baque.



Goi mailako txirrindulariak ibiliko dira Bergarako kaleetan lehen etapen.

ARTXIBOA

Txirrindularitza, zaleei ikus-kizun onena eskaintzeko asmoz, ahalegin ekonomiko handia egingez, beste lau talde ere ekarriko dituzte antolatzaileek. Ekipo posibleak honako hauek dira: Phonak, Lampre, CSC, C. Jaques, La Boulangère, Vini Caldirola eta Ag2r.

### KAMISETAK

Antolatzaileek esan digutenez, bergarrek egun horretako oroi-garri bat izan dezaten kamisetak aterako dituzte eta Erramu-zapatuko azokan ipiniko dituzte salgai. Bide batez, itzuliaren gaineko informazioa ere emango dute.

## FOTOKIROLA



### Eskola arteko futbol txapelketa

Eskola arteko V. Madura txapelketako finala eta sailkapenerako partiduak jokatu dira domekan Ipintzan. 10:30ean, Solano taldeak Zikoiak ekipoaren kontra jardungo du, eta bosgarren eta seigarren postuak egongo dira jokoan. Ordu berean, hirugarren eta laugarren postuetarako lehian Madura 94 eta Mapfrek jardungo dute. Finalean Madura 93 eta Joma taldeak egongo dira, eta partidua 11:30ean izango da //A.

## FUTBOLA

### Elurra zela-eta bertan behera geratutako partiduak egubakoitzean jokatuko dira

Elurrarengatik bertan behera lagatuko partiduak izango dira bihar, egubakoitzea. Goizean neskek jokatuko dute: futbol zortzian 10:00etan Zarautzen aurka eta besteek Aloña Mendiren kontra 11:30ean. Eguerdian, 13:30ean, erregionalekoek Elgoibar izango dute aurkari. Preferentekoen partidua 16:30ean izango da Hondarribiakoen kontra eta kadeteena Santo Tomasen aurka 18:30ean.

## KARATEA

### Shotokan taldeko bost karateka Euskal Herriko Txapelketarako sailkatu dira

Shotokan taldeko karatekek oso emaitza onak lortu dituzte Gipuzkoako Txapelketan eta Euskal Herrikoako sailkatu dira. Alebinetan, Joane Amasorrainek 4. postua lortu zuen. Infantiletan, katean, Aitziber Ferreira eta Kepa Odrizola 2. tokian sailkatu ziren. Kumitean, Andoni Condek eta Kepa Odriozolak 2. tokia lortu zuten eta Ugaitz Iruretagoienak hirugarrena.

## PILOTA

### Debarroko txapelketako lehen jardunaldia martitzenean izango da Udal pilotalekuan

Martitzenean, hilaren 23an, 19:30ean hasita, Debarroko txapelketako partiduak jokatuko dituzte herriko pilotariak. Kadeteetan Aldai-Osa bikoteak jardungo du eta seniorretan Muguruzak eta Gutierrezek. Hauek antzuolarrak izango dituzte aurrez aurre. Muguruzak eta Aldaik osatutako bikoteak gazteen mailan jokatuko du Arrasateko pilotarien kontra.



## ESKIA

### Pol-Pol eta Aloña Mendi elkarteek eskiatzera joateko irteera antolatu dute Aste Santurako

Frantziara, Tignesera, joateko irteera antolatu dute Pol-Pol mendizale elkarteak eta Aloña Mendik. Aste Santuan eta Pazko astean izango da irteera, apirilaren 9tik 17ra arte, hain zuzen ere. Jadanik elkarte bakoitzak autobus bana bete du eta hirugarrena bien artean jarri dute. Eskiatzera joan nahi dutenak, beraz, oraindik garaiz daude. Telefono hauetara dei dezakete: 943 76 48 51 (Pol-pol) edp 943 78 08 10 (Aloña-Mendi).

 **DEBA  
GARAIA**

ETXE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telefono Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**ETXAGI  
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8  
BERGARA  
943 76 53 12

**TELEIXA  
BILTEGIAK**

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tf. 943 76 27 93

**ezpeleta**  
Ostalaritzarako  
ehungintza

Ostalaritza eta  
egoitzetarako  
mahai-zapi eta  
industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09

**disdira**


ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55


# ARREGI AROZTEGIA



PVCzko  
LEIHOAK



Zatoz gure  
erakusketa handitu  
eta berritura.  
Bidekurutzeta  
38an gaude.



SUKALDEAK


ATEAK ETA  
LEIHOAK



HORMA ARMAIRUAK

BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoiak • Mota guztietako arozlanak

Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03



Sinpletasunaren xarma.  
Txikitasunean handi.





2004ko martxuaren 19xa

Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 13. alia

## IEPA LAGUNOK!

Begira zelako bertso hasieria. Ia zuek bukatzeko gai zareten.

Martxoak hemeretzi aitaren eguna ta nire aita dala munduko onena

Emaiozue zuen aitaxori besarkada haundi haundi bat nere partez!!



## URREZKO ARAUAK

Mugitzen ikusi zaittut Bederatzi eta huts irabazi dabe.



~~Mugitzen ikusi detsut Bederatzi huts irabazi dabe.~~



## JOLASA "Bat, bi, hiru, eguzki!"

Jolasari hasiera emon aurretik, zotz egitteko jolas baten bidez "betea" aukeratu-ko da. "Betea" paretan baten kontra jarriko da, eskuekin begixak estalitta.

Jolasa hasteko, beste jokalarixak paretatik hamar metrora jarriko dira eta euren helburua paretaraiño iristia izango da.

Paretan dagoenak "Bat, bi, hiru, eguzki" esan eta beste jokalarixak mobitzen ikusteko azkar emongo dau bueltia. Beste jokalarixak, paretan

dagoenak "bat, bi, hiru, eguzki" esaten daben bittartean, aurrerantz mobiduko dira, baiña esaldixa bukatutakuan gelditu egin biharko dira, paretan dagonak mobitzen ez ikusteko.

Buelta emondakuan, bateren bat mobitzen ikusi ezkeru, esango dau: " (Ainara) mobitzen ikusi zaittut", eta "Ainara" edo dana dalakua hasiera puntura bueltatu biharko da. Paretaraiño iristia lortzen dabenian, "Eguzki!" esan biharko dabe paretia iku-tuaz.

Bat, bi, hiru, eguzki !!



## AHO KORAPILLUA

• Akerrak adarrak okerrak ditte.

• Nork ikusi dau Akerregiko akermaker, adar okerra baiño akermaker adar okerragorik?



## TXISTIA

Futbol partidua ikusten egon ondoren, galdetu zotsen Praxkuri:

- Zer egin dabe donostiarrak?
- Bederatzi eta huts irabazi.
- Ez dira gol askotxo partidu batian sartzeko?
- Ez horixe! Momentu batian sartu dittue danak. Baloiak postia jo dau eta puntapaixa punta zorrotz baten pareparian jausi da. Baloia bederatzi zatititan banatu da eta bederatzi zatixak barruan sartu dira. Arbitruak, dudan egon ondoren, bederatzi gol kontatu ditte.

JA, JA, JA

## AURREKO ASTEKO IRABAZLIA

JUAN ZAN ASTEKO LEHIAKETAKO ERANTZUN ZUZENAK:

- |      |      |      |
|------|------|------|
| 1. E | 2. A | 3. G |
| 4. B | 5. D | 6. F |



ELENA DIAZ  
Mariaren Laguardia  
4. maila



BERGARA  
**Argiñe Varela**  
Martxoaren 8an.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



ONATI  
**Miren Zubia**  
Martxoaren 14an, 7 urte.  
Zorionak! Etxekoak,  
berezik! Josu eta Iker.



BERGARA  
**Naroa Herrero**  
Martxoaren 16an, 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Olatz**  
Martxoaren 18an, 27 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Iker Poza**  
Martxoaren 30an, 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Maddi Bengoa**  
Martxoaren 20an, 3 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Manex.



BERGARA  
**Leire Otero**  
Martxoaren 18an, 16 urte.  
Zorionak! Gelakoak eta  
Gabero abesbatza.



BERGARA  
**Kimberly Castro**  
Martxoaren 19an, 8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Ariana Sasieta**  
Martxoaren 23an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Aita, ama eta Elene.



BERGARA  
**Olatz Olañeta**  
Martxoaren 17an, 4 urte.  
Zorionak! Aitatxo, amatxo  
eta Aitor.



ANTZUOLA  
**Diego Rajado**  
Martxoaren 31n.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



ANTZUOLA  
**Eneko Sagastune**  
Martxoaren 24an.  
Urte askotarako!  
Ama eta aitaren partez.



ANTZUOLA  
**Nahia Sagastume**  
Martxoaren 25ean.  
Urte askotarako!  
Ama eta aitaren partez.



BERGARA  
**Sandra Tabares**  
Martxoaren 16an, 15 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Josu Elorza.



BERGARA  
**Iker Etxebarri**  
Martxoaren 18an, 16 urte.  
Urte askotarako!  
Gabero.



BERGARA  
**Gaizka Gantxegi**  
Martxoaren 22an, 13 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33 **Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara **Elgeta:** Erosle-Baltxongua

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetzeg eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

# BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia.  
Aurrekontua konpromiso gabe.


Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

# ELKAR

## ELEKTRAGINTZA

**ZURE  
ZERBITZURA!!**

### Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.  
**BERGARA**

# Kontuola

ANTZUOLA / Eguena / 2004eko matxoaren 18a / 194. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Debarroko pilota txapelketan sei antzuolarrek hartuko dute parte, datorren astetik aurrera

AINTZANE IRIZAR

Datorren asteko martitzenean, martxoak 23, ekingo diote Debarroko eskuz binakako pilota txapelketari. Guztira, Olalde elkarteko sei pilotarik hartuko dute parte txapelketa horretan: kadete mailan hiru pilotarik jardungo dute eta nagusien mailan beste hiruk.

Lehenengo fasean, Debagoieneko eta Debabarreneko pilotariak, norik bere aldetik jokatu dute ligaxka. Bigarren faserako, eskualde eta maila bakoitzeko bi bikote sailkatuko dira.

Esan bezala, datorren martitzenean, hilak 23, hasiko da txapelketa, eta finala, berriz, ekainaren 26an jokatu dute.

### KADETEAK ETA NAGUSIAK

Hiru mailatako pilotariak jokatzen dute Debarroko txapelketa: kadeteak, gazteak eta nagusiek, hain zuzen ere. Dena dela, Antzuolako Olalde elkartearen kasuan, kadeteak eta nagusiek bakarrik



Ezkerretik hasita, Aitor Jauregi, Asier Longares, Aitor Mendizabal, Josu Agirre eta Xabier Biteri.

parte hartuko dute. Nagusien mailan, hiru pilotarik jardungo dute: Josu Agirrek eta Xabier eta Jon Gurutz Biteri anaiek, hain

zuzen ere. Kadeteen mailan, berriz, honako hauek jokatu dute: Asier Longaresek, Aitor Jauregik eta Aitor Mendizabalek.

Begarako bikoteen aurka jokatu beharko dituzte antzuolarrek lehendabiziko partidua, martxoaren 23an, Bergaran.

*Olalde elkarteko kadete eta nagusien mailako pilotariak hartuko dute parte txapelketan*

*Begarako pilotarien aurka jokatu dituzte lehendabiziko partidua*

Aipatzekoa da, bestalde, Gipuzkoako txapelketa zaharrena dela Debarrokoa; urtero, balarako herri bati egokitzen zaio txapelketa hori antolatzea, eta aurten, Eskoriatza izan da ardurari hori hartu duena.



### Azkonarra Ertzillan

Elurra egin zuen egunetan, azkonar batek aterpe ezin hobea topatu zuen Ertzillako txabolaren, baserritik gertu. Badirudi, gainera, gustua hartu diola txoko horri; izan ere, hantxe jarraitzen du ordutik; eguneko joaten da txabolara eta lo pasatzen du ia egun guztia. Gauez, berriz, alde egiten du.

Animalia basatia izanik, oso bitxia da azkonar honen portaera, ez daude eta jendearekin ohituta. Asko inguratuz gero, beldurtu egiten da, baina, esan bezala, hantxe jarraitzen du. Ertzillako txabola hori botatzeko asmoa zuten, baina, oraingoan, ezin izango dute horrelakorik egin, bizi-lagun berria dauka eta. /A.I.

### LABUR

#### Erretiratuek urteko batzar orokorra egingo dute etzi, zapatua, elkartearen egoitzan

Erretiratuen elkarteak etzi, zapatua, egingo du urteko batzar orokorra. Elkartearen egoitzan bertan izango da, 18:00etan. Oraingo batzarrean ez dute zuzendaritzan aldaketarik egingo, baina, azaldu digutenez, gai oso garrantzitsuak landuko dituzte, lokalaren gaia, besteak beste; horregatik jende guztia joatea komeni da.

#### Gaur, eguena, atera behar dira traste zaharrak, 20:00ak eta 22:00ak bitartean

Traste zaharrak ateratzeko eguna da gaur, eguena, Antzuolan. 20:00ak eta 22:00ak bitartean atera behar dira traste horiek, zaborraren ondora. Orain dela hilabete ingurutik, hilero dago Antzuolan traste zaharrak jasotzeko zerbitzua.

#### Emakumeen gaineko erakusketa oraingo asteburuan zabalduko dute berriz

Orain dela bi aste jarri zuten Giza eskubideak, emakumeen eskubidea izeneko erakusketa. Anelkarrek antolatutako argazki erakusketa hori aurreko asteburuan ere zabaldukoak zire. Zapatuan jarriko dute berriz ikusgai eta domekan ere zabalik egongo da.

ELKARRIZKETA

XABIER AZKARATE/TRIATLETA

*“Neguko triatloietan bakarrik ibiltzen naiz; igerian ez naiz ondo moldatzen”*

A.I.

Xabier Azkarate, Azkarate baserriko semea, denok ezagutu dugu korrikalari ona izan delako. Orain, triatloian jarduten du. Aurreko asteburuan, bosgarren egin zuen Reinosan (Kantabria) jokaturako lasterketa baten.

**Korrikalari ezaguna zara gure artean, baina, triatloian noiztik zabilta?**

Urte asko dira triatloian hasi nintzela, hamabi bat urte izango dira. Behin, kasualitatez, tokatu zitzaidan horrelako lasterketa bat ikustea, eta gustatu egin zitzaidan. Neure buruari esan nion: “Hauek egiten badute, neuk ere bai”. Eta horrelaxe hasi nintzen. Beti korrika ibili izan naiz, eta zerbait ezberdina probatu nahi nuen. Triatloi berezietan parte hartzen duzu: korrika, bizikletan eta eskiatzen. Aurreko bi asteburuetan bi lasterketatan parte hartu eta oso ondo ibili zara.

Bai; Jacako lasterketan, hamaseigarren egin nuen. Munduko Koparako frogari baliagarria zen. Reinosan, berriz, Kantabriar, bosgarren geratu nintzen. Nahiko pozik nago; gainera, kontuan hartu behar da orain dela lau urte lesio handia izan nuela. Beste triatloietan parte hartzen duzu?

Ez, izan ere, igerian ez naiz oso ondo moldatzen.

**Talderen bateko kide zara?**


Bai; Kantabriako Camargo taldekoa naiz. Triatloian ibiltzen nintzenean, hango jendea ezagutu nuen eta aukera hori izan nuen, onartu egin nuen.

**Eskiatzeko, zela entrenatzen zara?**

Astebururo joaten naiz Jacara, eta hantxe entrenatzen naiz, eskiatzen.

**Eta bestelako entrenamenduak zela antolatzen dituzu?**

Antzuolan eta inguruetan ibiltzen naiz korrika eta bizikletan; elu-



A.I.

*“Eskiatzeaz gain, korrika eta bizikletan ibili ere elurretan egin behar izaten dugu”*

rra egin zuenean, eskiatzen ere ibili nintzen baserri osteko zelaian. Gainera, aipatzekoa da korrika eta bizikletan ibili ere elurretan egin behar izaten dugula. **Antzuolako besteren bat ibiltzen da?**

*“Neguko triatloietan bakarrik parte hartzen dut; udakoetan ez naiz ibiltzen”*

Nik dakidala, ez; dena dela, Aitor Larreak parte hartu izan du lasterketaren baten. **Momentu honetan, ze lasterketa prestatzen diharduzu?** Espainiako txapelketa jokaturako dut asteburuan, Echoko bailaran.

HAUTESKUNDEAK

EAJk lortu zuen boto gehien Antzuolan

AINTZANE IRIZAR

Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan, 1.647 antzuolarrek zuten botoa emateko aukera, eta 1.308k eman zuten. EAJ alderdiak lortu zuen boto gehien, 402, hain zuzen ere. Bergarako Ekimenaren aldekoak izan ziren bigarren, 288 botorekin.

Aipatzekoa da, alde batetik, parte hartzea oso altua izan zela, %79,5ekoa, hain zuzen ere. EAJ-ri eman zioten gehienek botoa, 402 lagunek, hain justu; *Autodeterminazioaren aldeko* bozka izan zen bigarren geratu zena, 288 botorekin. PSOE izan zen hirugarrena (181 boto); Aralar-Zutik

koalizioak 176 boto lortu zituen, EAk 153, PPK 53 eta IUk, azkenik, 36 boto. Aipatzekoa da, bestalde, Antzuolako Udaleko PSE-EEko zinegotzi Elvira Kortajarena Espainiako kongresuko diputatu aukeratua izan dela.

PROTESTA EKITALDIA EGUERDIAN

Hirurogei bat lagun elkartu ziren domeka eguerdian, Iruñeko Angel Berruetaren hilketa salatzeke. Ertzainek, baina, galarazi egin zieten kontzentrazioa egitea; azaldu digutenaren arabera, pankarta zabaltzen ere ez zieten laga. Bestalde, goizean zehar herrian ibili ziren ertzainek, bi aldiz identifikarazi zituzten Gazte Asanbladako batzarrerako kartelak jartzen zebiltzan gazteak.



D.A.

Eguerdia bitartean, jende ugari ibili zen hauteslekuan.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Martxoak 19  
12:00: Antzuola-Bergara (Kadeteak)  
16:00: Antzuola-Behobia (Gazteak)  
Martxoak 21  
15:00: Antzuola-Beti Ona (Gazteak)

PILOTA

Martxoak 19 (Udaberri Saria)  
17:00: Olalde-Zarautz (Kadeteak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 1 Urnieta 2 (2. erreg.)  
Antzuola 4 Eibartarrak 1 (Gazteak)  
Soraluze 6 Antzuola 2 (Kadeteak)  
Touring 5 Antzuola 0 (Neskak)

PILOTA

Udaberri Saria  
Tartaloetxe II-Olalde (eskuz kad.). 4-22  
Urnietakoko I-Olalde (paletaz) ... 20-35  
Olalde-Altzaterra I (paletaz) ... 35-29

DEKORAZIOA  
**ABAD**  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

**LEKY-BERRI MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

# Goibekokale

ELGETA / Eguena / 2004eko martxoaren 18a / 178. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Udaltalde 21 Debagoiena abian jartzeko hitzarmena onartuta

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udalak, azken osoko bilkuran, Udaltalde 21 Debagoiena plangintza abian jartzea erabaki zuen, eta baita honen aldeko hitzarmena sinatu ere. Garapen iraunkorraren bidetik apustu garbia egiteko asmoa azaldu dute honela Udaleko ordezkariak.

Elgetako Udalak, Debagoieneko gainontzeko herriekin batera, Udaltalde 21 plangintzaren aldeko konpromisoa hartu du.

Plangintza honen bitartez, Agenda 21 delako egitasmoa abian jarriko da. Lau ardatz nagusitan oinarritzen da Tokiko Agenda 21: ekonomia, gizarte, kultura eta ingurumena.



Plangintza honen helburua, besteak beste, garapen iraunkorraren izenean ingurumena zaintzea da.

### GARAPEN IRAUNKORRA

Udalak garrantzitsutzat jotzen du garapen iraunkorra sustatzea, eta horretarako Udalak berak, herritarrek, elkarteek eta erakundeek zein enpresek egitasmo honekin bat egiteko eta gaiaren inguruan hitz egiteko beharra dagoela dio.

Beste hainbat punturen artean hitzarmenak dio herrian bertan ere neurriak hartu behar direla plangintza urbanistikoak egiteko orduan, garapen iraunkorra bermatzeko.

Osoko bilkuran bi alderdiek eman zioten baietza hitzarmena sinatzeari. Hala ere, Aralarko ordezkariak esan zuten ez dela komeni hitzarmen hutsean gertzea eta ekintzekin erakutsi behar

dela konpromiso hori. EAJ-EAkoek erantzun zieten oraingoz hitzarmena sinatuko dela eta gero erabakiko dela nola gauzatu plangintza herrian bertan eta zein mekanismo erabili.

### KIROLA

## Apirilean hasiko da areto futbol torneoa

I.A.

Udaleko Kirol Zerbitzuak areto futbol txapelketa ipini nahi du abian, azken urteotan bezala.

Txapelketa apirila eta ekaina artean jokatu da, baina zenbat partaide izango diren lehenbailehen jakitea komeni zaie antolatzaileei. Beraz, izena emateko epea martxoaren 31n amaitzen dela jakinarazi digute. Izena ematean 30 euro ordaindu behar dira eta, honetaz gain, talde bakoitzak beste 30 euro emango ditu fidantza gisa. Interesatuak 943 76 80 22 telefonora deitu behar dute.

### SARIAK

Areto futbol txapelketako talde irabazleak 180 euroko diru saria eta trofeoa jasoko ditu; bigarrenak, berriz, 90 euro dirutan eta trofeoa. Bestalde, torneoan gol gehien sartzen dituen jokalariek ere jasoko du saria: 60 euro eta trofeoa.

Iaz Elgetako bi taldek jardun zuten txapelketan: Txapela eta La Kokotxa ekipoek, hain zuzen ere. Baina bat bera ere ez zen finalean izan. Arrasateko Ariñiketan taldea izan zen nagusi, bigarren urtez, Bergarako Chievo taldeari irabazita.



Txapelketan izena emateko epea martxoaren 31n amaituko da.

### LABUR

#### Patziku Perurenak hitzaldia egingo du martxoaren 25ean

Patziku Perurena idazle nafarrek hitzaldia egingo du datorren egunean, martxoaren 25ean, liburutegian. Iluntzeko 20:00etan hasiko den saioan, Perurenak koloreek euskal tradizioan izan duten erabilpenari buruz hitz egingo du. Izan ere, liburu bat idatzi zuen gai honen gainean 1992an. Liburu hau bilketa lan baten ondorioa da eta interpretazio ugari agertzen da bertan, bai koloreen gainean eta baita euskal usadioen inguruan ere. Horiek baitira lanaren bi ardatz nagusiak.

#### Kutzaren bulegoa tokiz aldatuko dute obrak egiteko

Datorren martitzenean tokiz aldatuko dute Kutzaren bulegoa, eta eguaztenetik, hilaren 17tik, aurrera San Roke kalean lehen estankoa zegoen tokian egongo dira. Izan ere, orain arte euren egoitza izan den plazako lokalean hainbat obra egin behar dituzte, guztia berritzeko asmoz. Hori dela eta, bi hilabete inguru emango dituzte gutxienez San Roken. Behin lan guztiak amaituta berriz ere itzuliko dira plazara. Bitartean bezeroek behin-behineko bulegora joan beharko dute gestio guztiak egitera.

#### Ibilgailuen zergak apirilean hasiko dira kobratzen

Ibilgailuen errolda egiten dihardu Udalak eta behin gertatuta duenean zergak kobratzen hasiko da. Guztira, 630 ibilgailutik gora dago herrian, autoak, motoak, kamioiak, traktoreak eta bestelakoak kontuan hartuta. Gehienak turismoak dira, 530 baino gehiago. Bakoitzak tarifa ezberdinak ordaindu beharko ditu eta apirila eta maiatza bitartean kobratuko dira.



ELKARRIZKETA

GAZTETXEKO KIDEAK

“Gazteen pasotismoarekin amaitu behar dugu”

I.A.  
Zapatuan zortzi urte bete-ko ditu gaztetxeak. Gaztetxearen nondik norakoak jakiteko bertako kideekin izan gara eta oraingo egoeraz eta etorkizunaz egin digute berba. Argazkian horietako batzuk baino ez dira azaltzen.

Noiztik diharduzue gaztetxean lanean?

Gaur egun, gaztetxe bari-kuetako batzarretan 15 neska elkartzen gara gutxi gorabehera. Batzuek 1999tik dihardugu eta gazteenek urtebete inguru daramate lanean.

Zein izan ziren gaztetxea sortu zeneko helburuak?

Guk ez genuen sorreran parte hartu, baina orduko estatutuen arabera, egoteko lekua izateaz gain, gaztetxeak gazteen aisialdiari irtenbidea emateko lekua ere izan behar zuten. Gaur egun helburu bera betetzen du: denbora libre pasatzeko eta informatzeko tokia izatea. Bertan lanean dabiltzanak modu alternatibo, independente, asanbleario eta autogestionatuan antolatuzko

aukera eman behar du, gazteen kontzientziak bultzatuz, arazok salatuz, pentsamendu kritikoa sortuz...

Jarraituko al duzue?

Gaztetxean gorabehera asko eta momentu on eta txarrak bizi izan ditugu baina jarraitzeko asmoa dugu, asko ikasten dugulako eta borrokatzeko aukera eskaintzen dugulako.

Etorkizunerako zein asmo?

Orain arteko ekintza motak egiten jarraitzeko asmoa dugu, nahiz eta ekintza batzuetara, hitzaldietara adibidez, oso jende gutxi etortzen den normalean. Borrokatzeko gauza asko gelditzen da oraindik, eta garrantzitsuena da gazteen kontzientziak bultzatzea eta pasotismoarekin amaitzea.

Urteurreneko ekintzak

MARTXOAK 18, eguena

21:00: Kafe-tertulia inguruko gaztetxeetako kideekin

MARTXOAK 19, barikua

22:00: Antzerkia: *El feeling es así*. Tearto taldea

MARTXOAK 20, zapatua

13:00: Trikipoteoa

14:30: Bazkaria

Ondoren: Bertsolariak eta sorpresa

19:30: Trikipoteoa

22:30: Kontzertua: Trapatoni eta Middle Finger

MARTXOAK 27, zapatua

22:30: Kontzertua: Matxura eta Morau



HAUTESKUNDEAK


EAJ nagusitu zen 266 botorekin domekan

I.A.  
Espainiako Gorteetarako hauteskundeak lasai joan ziren domekan. 841 elgetarrek zuten botoa ematera joateko aukera eta horietatik 648 joan ziren. Abstentzioa, beraz, %23 izan zen. 2000ko hauteskundeekin alderatuz behera egin du nabarmen, orduan %47 izan baitzen.

BOTO ZENBAKETA

Zortziak pasatxoan hauteskontziak ireki eta boto zenbaketa

hasi zuten. EAJk lortu zituen Elgetan boto gehien, 266 hain zuzen ere. Bigarren indarra Aralar-Zutik koalizioa izan zen 143 botorekin. Ondoren, Bergarako Ekimenaren aldekoak geratu ziren. 95 boto eskuratu arren, baliogabetzat hartu zituzten; hauetaz gain, beste bost boto ere baliorik gabekoak izan ziren. EAJk 55 boto izan zituen, PPK eta PSO-Ek hogeita bederatzina boto, eta IU-EBK 22. Izquierda Republicana boto bakarra eskuratu zuen eta hiru boto zuriak izan ziren.



Partaidetza handia izan zen: %77, hain zuzen ere.

LABUR

Lau t'erdiko pilota txapelketa bihar, barikua, hasiko da

Bihar, barikua, San Jose eguna, ekingo diote lau t'erdiko pilota txapelketa. Goizeko hamarretan hasiko dira norgehiagokak Udal pilotalekuan. Zapatuan, partiduak Elgetan eta Abadiñon izango dira 16:30ean hasita eta domekan, berriz, 11:00etatik aurrera Elgetan. Bestalde, abian da Debagoieneko binakako txapelketa ere. Lehen jardunaldian Uribarren-Lizarralde, Isturiz-Redondo eta Koldo-Peñin bikoteak nagusitu ziren.

**Patxi Taberna**

• Bokata goxoak • Plater konbinatuak  
• Espezialitatea: Tripakiak

Salbador, 3 Tel.: 943 768 093 Elgeta

**ELGETA AUTOAK**

Berraondokoa z/g ELGETA  
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

Jesus Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**

Artekale 3  
Mo: 656783299 Eibar  
Tel: 943 70 07 19

**KONPONKETAK  
SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**

## ERRETRATUZHARRA

BERGARA

Umore Ona  
abesbatza  
TVE n, 1974an

**E**gunotan 30 urte beteko dira alboko argazkia atera zenetik. Umore Ona abesbatza TVEko *Tarde para todos* saioan parte hartu zueneko irudia duzue eta, esan bezala, 1974ko martxoan aterata dago, TVEko Prado del Rey estudioetan, Madrilen.

Esan bezala, *Tarde para todos* saioan parte hartzeko gonbidapena jaso zuen Umore Ona abesbatzak. Jesus Berroia-  
ren zuzendaritzapean, *Agur jaunak* (Miguel Gonzalez Bastidaren konponketa), *Guda zitala (Lazkano)*, *San Juan (Guridi)* eta *Goizeko izarra (Santesteban)* kantua abestu zituzten bergararrek.

Argazkian ikus dezakezuenetz, dotore-dotore joan ziren Madrilera Umore Onako abeslariak, tximeleta (pajarita) eta guzti. Telebista kameraren aurrean ondo baino hobeto moldatu ziren gure herriko ordezkariak.

Argazkian, ezkerretik eskumara:

Bigarren ilaran: Salvador Olabarria, Ramon Elizgarai, Miguel Basterra, Sabin Zelaia, Xabier Iñurreta, Pantaleon Oregi, Gerardo Mondragon eta Genaro Sui-naga.

Aurreko ilaran: Roman Muxika, Jose Mari Gallastegi, Bizente Okina, Bizente Retegi, Victor Gallastegi, Martin Arana eta Jose Lizarralde.

Aurrean, Jesus Berroia.

Argazkia: Jesus Berroia



## ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zataz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## ETXEBERRIA

## ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## ANTIA


HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

POL-POL  
Taberna

943 76 07 78. Bergara

Manufacturas LARRAÑAGA  
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitriloak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

OGIZUN  
koop. elk.  
okindegia

Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
ONATI  
943 78 24 13

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zerk eragin zuen 71 pertsonaren heriotza Bergaran 1918an:  
Matxinada batek, uholdeak ala gripe-epidemia batek?

BERGARAROSPETSUAK


Jose Maria  
Glez. Bastida

JOSE LUIS ANSORENA

A ita Udal Bandako zuzendaria zuen, eta mutikotan bandan sartu zen flautina jotzeko. Flauta-jole ospetsua izan zen. Santa Marina parrokiako organo-jolea izan zen aitaren ondoren. 1929an, Zumaiko Udal Bandako zuzendari-postua lortu zuen, eta 1931n kargu bera eskuratu zuen Hernanin. Donostiako Orfeoia antolatutako Euskal Lanen Lehiaketa irabazi zuen *Gabon gabeen errundari* lanarekin, 1935ean. Orfeoia haren *Misa en Fa*, *Miserere* eta *Christus factus est* estreinatu zituen. 1943an, *La novia del mar* zarzuela estreinatu zuen Madrilen. 1944an, Gasteizko Udal Bandako zuzendari eta Guridi kontserbatorioko irakasle izendatu zuten. Easo abesbatza ere zuzendu zuen, arrakasta handiz, gainera.

Sari ugari irabazi zituen abesbatza eta txistu-bandetarako konposizio txapelketetan. Musikan ibilbide luze eta aparta egin zuen. Besteak beste, Isabel Katolikoaren Zaldun Ordenaren Gurutzea, Iruneko Urrezko Domina eta Euskal Herriko Txistulari Elkarteko Urrezko Domina eskuratu zituen. Donostian hil zen, 1997ko irailaren 27an, 89 urte zituela.

*Sari ugari irabazi zituen abesbatza eta txistu-bandetarako konposizio txapelketetan*



ARTXIBOA

GALDEDEBALDE

1.

Zeinek emango du udalak etxeko ardurak trukatzeko antolatutako ikastaroa?

- A/ Beartek.
- B/ Bide Eginek.
- C/ BEKEK.

2.

Zein sukaldari dabil BEKEK antolatutako sukaldaritza ikastaroan?

- A/ Inazio Beldarrain.
- B/ Koldo Lasas.
- C/ Koldo Arruti.

3.

Nola du izena Asier Serranok kaleratutako bigarren diskoa?

- A/ Ez esan.
- B/ Gerrari bai.
- C/ Bizirik nago.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MAITE ARANTZABALendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maite! Galderen erantzunak: Bonofotoa: Erret Mintegian edo Seminarioan, Xabier Maria Munibe plazaren ondoan / Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Sos arroza

Kilo bat.

1,06 €

176 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Idoia Iriarte Irureta

Dentista

Artekale 1 - 1C Bergara Tel.: 943 76 01 65

Odontologia orokorra •

• Asegurua: LAGUN-ARO



# Indartsuago.

**Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.**

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresentan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobetagoa den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitez gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

**DHL Express Bergara**  
**San Juan Erreka 33**  
**20570 - Bergara**  
**Tel.: 943 763 642**  
**Faxa: 943 765 425**

MUNDUA MUGITZEN DUGU 